

101 INGREDIENTS

- **ZER DA?**

Aplikazio bat da non jendeak kontsumitzen duten janariaren argazkiak igo ahal dituen plataforma honetara, baita bere iritzia eman dezakete ere, besteak jakiteko nolako janaria dagoen leku bakoitzean. Horrela elikagai guztien errealitatea ezagutuko dute eta ez jatetxetan jartzen dituzten argazki artifizialak.




- **IDEIAK**

Lehen esan dugun bezala jendeak benetako errealitatea ezagutzea da gure helburu nagusia. Horretarako hainbat abantaila izango ditu gure aplikazioak:

- Janaria nondik datorren etiketatuta egongo da; hau da, edonork ikusi ahal izango du zein jatetxeri dagokion argazkia.
- Janariak daramatzan osagaiak aipatu egingo dira argazkian; ondorioz, pertsona zeliakoak, esate baterako, elikagaiak haien osasunerako onak diren jakin dezakete.
- Elikagaien benetako errealitatea ezagutzeko gai izan zaitezke. Gure aplikazioan ez da argazki faltsurik / editaturik onartuko; errealitatea ezagutuko dute, alde txarrak baztertu gabe.
- Norbaitek argazki bat igotzean komentarioak idazteko aukera izango du, horrela ikuspuntu ezberdinak ezagutzeko.

• Gure logoa:



INGREDIENTS